

# JUANA BISENTA OLABE



JUANA BISENTA NAGUSI JAUNA ETA MORROYA



J. Bis.      **Nagusi jauna, ausen da lana,  
amak bigaltzen nau bedorregana:**

N. jauna. **Ai bigalduko bazinduke maiz,  
zu ikusi ta konsolatzen naiz,  
chinista zazu;  
joso zoraturikan naukazu!  
Orren polita nola zera zu!**

\*  
\* \*

J. Bis.      **Amak esan dit, echeko errenta,  
pagatzeko dirurik ez zuben ta:  
ia egingo diyon mesere,  
illabetian geyenaz ere,  
ichogotia;  
bada zierto dala ematia,  
pasa baño len illabetia.**

\*  
\* \*

N. jauua. **Logratutzia, erres alare,  
naiz ori ta beste zer nai gauzare:  
seguro da la esan amari,  
zu baldiñ bazatoz mandatari;  
dudarik gabe;  
Nere borondatiaren jabe  
zu zera Juana Bisenta Olabe.**

\* \* \*

J. Bis. **Beraz bertatik, nua echera,  
poz aundi bat amari ematera:  
oraiñ ariyo nagusi jauna,  
presaka jua biat amagana.**

N. jauna. **Ez zuazela;  
portatu zaite nik nai bezela,  
gaur echera jua ez zaitezela.**

\* \* \*

N. jauna. **Zuben echia, dago urruti,  
bidian zer gerta izan bildurti:  
bada ¡ya pasa da eguna,  
arratsa berriz dator illuna,  
oraiñ juatia;  
chartzat iruki nere rnaitia,  
Gaur emen bertan gera zaitia.**

\* \* \*

**Ez jua echera, bire oyetan,  
gabaz, bakarrik eta illunbetan;  
kontura erori zaitia zu,  
gabaz illunbian jua biasu,  
peligro aundiz  
eta obe dezu eun aldiz,  
biyar goizian jua egun argiz.**

\* \* \*

J. Bis. **Ezetz etsiya, egon liteke,  
ni emen gelditu eziñ niteke:  
amak espero nau gaberako,  
eta ark espero naubelako,  
juan biar det nik;  
alaba ikusi bagetanik,  
amak izango ez luke onik.**

\*  
\* \*

N. jauna. **Emen zureztat, dira parako,  
jaki chit gosuak afaitarako:  
erariya berriz Jaungoikoa,  
illak piztutzeko modukua,  
ardo onduba;  
ontzen urtietan egonduba,  
Malagatikan da bigalduba.**

\*  
\* \*

J. Bis **Jauna bedorrek, bañan alferrik,  
badaki armatzen lazo ederrik;  
lazua eiz bage gera dediñ,  
nere echian nai ditut egiñ,  
afaldu ta lo;  
nayago ditut ango bi talo,  
ta ez emengo milla erregalo.**

\*  
\* \*

N. jauna. **Biyotz nereko, dama polita,  
asmoz muda zaita ausen tori ta:  
amasei duroko urre fiña,  
sendatu nai zazun nere miña,**

J. Bis. **Ez jauna, ez, ez;  
merezi beziñ kopeta beltzez,  
esango diyot ezetz ta ezetz.**

\*  
\* \*

- N. jauna. **Gañera berriz, Juana Bisenta,  
utziko dizutet echeko errenta. ..  
kito zor dirazuten guziya,  
kunplitzen banazu kutiziya,**
- J. Bis. **¡Lotsa gogorra!!  
sufritzen dago gaur nere onra,  
¡penaz malkuak darizkit orra!!**

\*  
\* \*

- N. jauna. **Nik ditut kulpa, ez egiñ negar,  
orlakorik ez nizun esan biar:  
animan sentitutzen det miña  
zuri ofensa ori egiña,  
maldiziyua;  
ez dakit nun nekan juiziyua,  
eskatzen dizut barkaziyua.**

\*  
\* \*

- J. Bis. **Barkaziyua, du ta eskatu,  
nere biyotz onak eziñ ukatu:  
erakutzi ditalako jauna,  
gaitz egiñaren damutasuna,  
konforme nago;  
ez egiñ ta ofensa geyago,  
gaurkua oso astutzat dago.**

\*  
\* \*

- N. jauna. **¿Berriz nik egiñ zuri ofensa?  
¡arren orlakorik ez bara pensa!!  
zaukazkit neskacha fiñ batetzat,  
eta gusto aundi emaztetzat,  
artuko zaitut;  
biyotzetikan esaten dizut,  
zuretzat ona ba derizkizut**

\*  
\* \*

- J. Bis. **Ori egiaz, baldiñ badiyo,  
neregana egon liteke fiyo:  
bañan usatubaz kortesiya,  
ama neriari lizenziya,  
eska bezayo;**
- N. jauna. **Ori gustora egingo zayo,  
biyar goizian juango naitzayo.**

\*  
\* \*

- J. Bis **Banua oraiñ.—N. J.—Atoz onuntza,  
birerako artu laguntza:  
adi zazu, morroy Jose Juakiñ,  
echera farolan argiyakiñ,  
aingeru oni,  
gaur zuk laguntzia da komeni,  
kezketan egon ez nariyen ni.**

\*  
\* \*

- Morroya. **Aingeru ari, lagundu eta,  
orra jauna egiñ ostera buelta:  
bidian bai bildurcho zan bera,  
bañan allegatu ta echera,  
kontentu zegon;  
oraiñ kezketan ez du zer egon,  
oyera juan ta pasatu gau on.**

\*  
\* \*

**Eldu zanian, urrengo goiza,  
nagusiyak zuben kunplitu itza:  
juan zitzayon amari echera;  
andretzat alaba eskatzera,  
amak-chit firme:  
artuta gero milla informe,  
gelditu ziran biyak konforme.**

\*  
\* \*

Andik zortzi bat, egupetara,  
edo amar ziran ez dakit bada:  
ez amar eziñ zitezken izan,  
andik zortzi egunera elizan,  
ezkondu ziran;  
ezkondu ta echera segiran,  
jendia franko bazuten jiran.

\*  
\* \*

Bost illabete, edo sei ontan,  
Ez dirade beti egondu lotan:  
eman dute zenbait jirabira,  
eta gozatutzen bizi dira,  
dichak ausarki;  
obeto eziñ litezke arki,  
espero dute aurcho bat aurki.

\*  
\* \*

Dama gaztiak, ez egon lotan,  
begira zaitetze ispillu ontan:  
gustatu ta birtute ederra,  
andretzat artu bere maisterra,  
du nagusiyak;  
orla irabastera graziyak,  
saya zaiteste beste guziyak.

BILINCH.

